


GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

39. zk. / 1996ko martxoa


geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Molinillo

boxeo-izarra



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

AUPA alaves !!



ten mailari eustearekin nahikoa lan izango zela, baina denboraldiak aurrera egin ahala, Alaves gero eta aurre-rago dago, eta, dagoe-neko, ligo mailarako usaian, jarraitzailea ilusio berriak berpizten ari da taldearen inguruan.

Ilusioak beti izaten dira onak. Baina jakin dezagun maila honetan gorabehera haundiak gertatzen direla, eta oraindik 14 ihardunaldi, hots, 42 puntu daudela jokoan. Hau da, une honetan sailkapenean bigarrenak dituenak adina puntu. Beraz, hamaika aldaketa gerta daiteke, oraindik, amaiera bitartean.

Alavesek ere izango du zer esanik 14 partidu hauetan, nahiz eta oraindik talde gogorennetarikoan zelaian jokatu beharko dituen hauetariko partidu gehienak: Extremadura, R. Madrid, Badajoz, Mallorca... Ezin zaio ukatzen dena den, daraman bidean gauza haundiak egiteko gai izan daitekeela. Baina, eginak egin, egia zera da: Alavesek, arestian esan dugun bezala, jarraitzaileari ilusioa berreskurarazi diola.

Ligaren bidea aurrera doa, Alaves indarrez bete daugu, jokariak joku ona erakusten ari gara, zaletuak ilusioz beterik daude...

Denon artean epe laburrean Alavesen garairik ederrenak iritsiarazi ditzakegu. Beraz, ilusio honen parte garenok, batu gaitzen eta bultza dezagun denok batera ilusioa egia bihur dadin.

Aitor Arregi, 'Alaves' taldeko jokalaria

Zuzendaria:
JOSU KINTAS

Erredakzio-burua:
XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:
LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI
SUSANA CALLEJA
ITZIAR MTZ. DE SANTOS
ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
LOREA ZURIMENDI
MIEL ANJEL ELUSTONDO
DAVID ALVEZ
EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:
ALEX BADILLO

Itzultzailea:
IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:
IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:
AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:
KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:
EDORTA SANZ
LUKAS ETXEBERRIA
JOSEBA OLALDE
DAVID AGUILAR
JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:
TXIPI ORMAETXEA
JUAN JOSE KASTRESANA
IÑAKI GAUNA
TXABI ARNAL GIL
MIKEL GARMENDIA
KARLOS ETXENAUSIA

INPRIMATEGIA:
GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)

BADIRUDI ardo ona bailitzan, Alaves ere urteen joanean gorputz hobeagoa hartzen ari dela. Azkenaldi honetan, bederen, somatzen da babazorroen sendiak (jokolari, zaletu eta zuzendaritza) eginko lanak ez direla alferrikako lur antzuetan erori. Egoera berri honetan zaletuek gozatzeko aukera dute, be-hinik behin; orain artean gozatzeko baino gehiago sufritzeko jaioa izan baita Alaveseko jarraitzailea. Baina urte onak bada- toz, eta presta gaitzen hain- beste sufritu dugunok aurreko tristeziak gozamenaz dastatzeko.

Dagoeneko urrun geratzen da 1921eko urtarillaren 23an "Deportivo Alaves" sortu zeneko garai hura. Ordurako, ingelesek urte batzuk lehenago ekarri zuten futbola modan jarria zen aldameneko herrietan. Besteak beste, Athletic eta Erreala sortuak ziren eta arabarrei ere iritsi zitzairen bere garaia. Ordutik hona makina bat gertakari eta aldaketa izan ditu Alavesek eta, jada, 75 urte emanak ditu herri honen joan etorrien

lekuko gisa.

Bitarte horretan maila askotan ibili izan da Alaves: 3. mailatik lehenengora bitarteko maila guztiak ezagutu ditu gaurko 2-A mailara iritsi bitartean.

Jokolari ospetsuak ere izan ditu bere koloreak defendatzen: hasierako Ciriaco eta Quinoces, lehen mailan izan zen garaiko Primi eta gaur oraindik futbol munduan ditugun Valdano, Zubizarreta eta Lopez Recartek ere hemen eman zituzten beren lehen urratsak. Aipatzekoa ere da, aurtan ligo mailara igo eta hain ondo ari den Ivan Campo gaztea. Beraz, izan du, bai, zer esan eta emanik 75 urte hauetan Deportivok.

Antza denez, urteek eman- dako heldutasun honek ere, badakar besapean fruitu onik, izan ere, azken garai hauek larrosaz eginko bidea dirudite. Aurreko lau denboraldietan ezinezko egin zitzaion 2. A mailarako igoera lortu zuen iaz, eta, aurtan, hasiera motel baten ondoren, sailkapeneko lehen lekuetan dago. Igoera lortu ondoren bazirudien aur-

gasteizko euskaldunen aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikuzunak

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

geugasteiz aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

ZKIA:

Pisua:



Azken aldian entzunda daukat euli bat gure inguruan, telebistan irratian ta nonnahi dabilela hegan, bere hegoak zabalduz doa kalean eta eskolan Orain aurkitzen da modan hauteskundeen etorreran plaga moduan etortzen zaigu denongan azken boladan eta euli hau ixilduko da hauteskundeen ostean.

Bertsoak

Euli

madarikatua!

EGILEA:

Ibai Urdiraz

DOINUA:

Maitasuna da



Beti dabilta xugatu nahian betetzeko haien tripa, gure dirua etxea eta odola dute irrika Izen ugari dauzkate hauek Aznar, Gonzalez, Angita. Gure herriari zirika ta hauen kontra harrika. Gezurrak eta faltsukeriaz gure zaurietan xista Gizarte honen euli handiak izena du politika

postariak ekarrita

GASTEIZKO PLAZA ETA ARABAKO BERTSOLARIAK

Joan den hilabetea idatzi zenuenari erantzun dion **Abel**, antolatzaile lanetan ibili nintzelako urte hasierako bertso-saioan eta **Gasteizko Bertso Eskolako** eta **GEU Elkarteko** kidea naizen aldetik.

Zergatik "**Bertsolariak Gasteizko Plazara**"? Iaz eta aurreko argitaratu ditugun eskuko egutegietako leloarekin bat egiten duelako: 'Euskara Gasteizko Plazara'. Gainera bertsolaritzan 'bertso saioa' eta 'plaza' sinonimoak dira eta Principal Antzokia bigarren aldiz izan da Gasteizen egon den plaza jendetsuena.

Zergatik ez da egon bertsolari arabarrik? Iazko urtarileko saioa antolatzekoan nik neuk proposatu nuen Arabako bertsolariren bat sartzea. Ez zen proposamena onartua izan Zuzendaritza Batzordean. Joan den urteko erantzuna ikusita ez dut aurreko nere eskaria berritu.

Zuk esan duzun bezala diskriminazioa egon da, edo hobe esan, ez da diskriminazio positiborik egon. Baina Arabako bertsolariek behar duten laguntza errazteko lan handiagoa egin behar du lukete beraiek beren burua ezagutarazten, **Arabako Bertsolari Elkartearen** laguntzaz. Ez da horren zaila bertso saio txikiak antolatzea, honetarako animorik baldin badago behintzat. Bestela zaila izango dugu bertso saioen antolatzaileak konbentzitzea geure herrikideak 'izarren' ondoan kantari jar ditzaten.

Bide berriak eta ausartak urratzen egingo du aurrera Araban bertsolaritzak. **Barrian** hilaren bigarren asteburuan bilduko diren gazte gogotsuak ausardi horren adibide on bat dira. On egin dagiela!

Xabier Rico

AURREKO HILABETEAN
ARGITARATU GENTUEN
OIHANE PEREAREN BERTSOAK
EZ ZIREN BEHAR BEZALA
AGERTU. BIHOAKIE
HEMENDIK GURE
BARKAMENA OIHANERI ETA
IRAKURLE GUZTIEI

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



izozkiak

eutsi Joseba!

Arren bankaiguzue! Hilabete honetan ezin izan dugu kalea mintzo sail arraskastatsua argitaratu. Izan ere, bertan agentzen diren argazkiak ateratzen dituen gure foteroa epailearen aurrean

*agentu
berri da*

soldaduzkari eta prestazio sozialari uko egiteko dituen arrazoiak azaltzeko. Behean ikus dezakezuenez, Joseba ez zen bakarrik egon une goxo hartan, bere Olabide Ikastolako ikasleek eta beste zenbaitetik ere elkartasuna adierazi nahi izan baitzioten.



martxoak 3

**EUSKADIREKIN
HAN ETA HEMEN**



eman botoa



BALITEKE EUSKARAREN UDAL ORDENANTZA BERRIAK MARTXOAN ATERATZEA

Hitza betetzearen zain



GASTEIZKO "Euskararen Normalizaziorako Udal Ordenantzak" hilabete honetan bertan aurkeztuak izatea espero da. Horrela esan zuen behintzat José Angel Cuerda Alkateak iazko abenduan, udal alderdi politiko eta Euskaltzaleon

Elkargunea taldearen artean burututako bileran. Hitzartutako konpromezua beteko dela baieztatu digu Arantza Zenarruzabeitia euskara gaiez arduratzen den zinegoziak.

Euskal taldeon erantzuna jarrera baikor baina arretatsua mantentzea da. Astean behin edo, Udaletxearen aurrean konzentrazioak buruko dira bi helburu nagusi defendatzeko. Alde batetik, Euskararen

Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industrialak
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

JATETXEA
Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47

Ordenantza berriak martxoan kalera daitezzen Udalak emandako hitza betetzea; eta bestetik, ordenantza hauek iaz alderdiguztiekin adostaturakoak izatea.

Euskara Batzordea

Euskaltzaleon Elkarguneko kideak beldur dira Gobernu Batzordeak eta bertan gehiengoak daukan EAJ alderdiak aldeztu aurretik onartutako Euskara Batzordearen sorrera bertan behera geratuko ote den.

Euskal taldeentzako puntu hau oinarrikoa da Gasteizko euskalduntze prozesurako, Euskara Batzordeak, onartutako arautegi berriaren jarraipen zuzena egingo lukeelako. Era horretan, "Euskararen Normalizaziorako Udal Ordenantzak" bere osotasunean eta efektibitate handiagorekin bete ahal izango lirake.

Talde euskaldunen errezeloa EAJk azkenengo bileran arinki egindako komentario batean datza. Susmoa egiaztatzen bada, Euskararen Ordenantza berrien jarraipena udaleko sail bakoitzaren eskuetan uztearen alde agertuko dira, hain zuzen ere. Nola edo hala, Arantza Zenarruzabeitiak egiaztatu egin du martxoan aurkeztuko direla Ordenantzak.



Martxoa



HILABETE HONEK badu halakoxarma berezi bat. Gorabehera asko nahasten ditu martxoak. Neguak bere azken ostikadak ematen ditu, maizagorrorak, eta udaberriak bere atea ireki. Landareek beren kimu beldurtiak kanporatzen hasten dira, izoztuko ote zaizkien errezeloarekin. Abereei ere ilea fintzera dihoakie eta eguzkiak gogotik jotzen ikasten du: "Martxoko eguzkiak majo mantsotzen ditu guztiak".

Baina hortik aparte ere badu beste berezitasunik, niri behintzat barne sentimenduak kir-kir jartzen dizkidana: kantuen hilabetea izendatuko nuke nik martxoa. Izan ere, txoriak bere lehen maitasun kantak probatzen hasten dira, lehen kabiak osatzen. Aurreko hilabeteetan ez bezala begirune garbigoa eta alaiagoa antzematen zaiela iruditzen zait.

Eta Araban, txoriak era hortara ikusiz, bertsolariak ere kantuan murgiltzen dira martxoaren hasieratik. Prudentzio Deuna- Estibalizko Ama (Arabako Bertsolari Txapelketa) bere zazpigarren urtera iristen zaigu aurtengo honetan.

Hilabete osoan zehar izango da zer entzunik eta non gozaturik.

Gutxi balitz, hogeita bostetik hogeita hamarrerako astea, Bertso Astea izendatu dute, hitzaldi, bertso saio, kantaldi eta beste zenbait ekintza burutzeko asmoz. Adi, beraz, Gasteizko bertsozale eta euskaltzale guztiok.

Hau guztia hala izanda ere aurtengo martxoak badu bere alderdi ezkorrik ere. Egutegira begiratu eta, igandetatik aparte, zenbaki gorrririk ez. Nola liteke baina...? Batek bere ikerketatxoa egin eta hara hor non biltzen den pekatua... Gure agintari "katoliko" burugorrorak, Nazaretoko zurgin fina, San Jose haundia, zakarrontzira bota dutela..."Arotzaren etxean..."

Arabako gaztak punta-puntan dabil-tza, ardoa zer esanik ere... Txakolinarekin ere muturra aurreratu dugu... Janari alor guztietan ezagutzen gaituzte, baina dastatzeko eguna falta, San Jose eguna lapurtu digute. Lerro hauetatik nire protestarik protestanteena.

Abel Enbeita

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Fernando


«HEMENGO BIZIMODUA OSO GOGORRA DA»

Presas: «Nandus»

Nor da?

□ Ezaguna da Nandus gasteiztarren artean. GEU GASTEIZ-en aurreko alean ere bidaia luzearen berri eman zigun. Etorri orduko Gasteiztik hanka egiten digula jakin dugu eta kaixo! eta agur! esan nahi izan diogu. Elkar hizketan zehar Gasteizko zein atzerriko, bereberek diren kezkak zein guztionak nahasi dira, anabasan.

□ Ibiltari da jaiotzatik, gurasoetatik ere. "Leonen jaio nintzen. Gurasoak Parisera joan ziren bizitzera. Ni herrian geratu nintzen, Riaño ondolan, osaba-izebekin. Hantxe hazi nintzen. Gero, 12 urte nituela, gurasoak etorri eta Gijon-era aldatu ginen. Gure aitak Ensidesan egin zuen lan baina gero utzi egin behar izan zuen eta Gijondik hona etorri ginen". Haurtzaroa Leonen, gaztaroa Gijonen eta Euskal Herrian. "Soldaduzkara joan eta hantxe ezagutu nuen euskal giroa, Baztango batekin eta Zumaiko beste batekin. Hantxe jakin nuen euskarari buruz. Aurretik, Extremadura kalean ibiltzen nintzen, Arana aldean, emigrantekin, euskaraz batere ez zekitenekin. Telebista ikusi,



atentatuak eta, eta "Hau zer ote da?", galdetzen nion nire buruari".

□ Zodiakoa? "Ea asmatzen duzun!". Bidaiazalea, optimista... Sagitario, behar bada? "Jende askok esaten dit. Eta baikorra naiz, bai. Bestela ez nintzateke izango egun batean Bilbon, hurrena Gasteizen eta segidan Iruñean. Hala ere, eskorpio naiz". Burugogorra, beraz: egoskogorkeria ezaugarri.

□ Gasteizen bizi izan da hamahiru urte honetan. Orain, Iruñera egin du hegana. "Ziklo berri bat hasi

nahi dut orain. Bidaian bertan hartu nuen erabakia. Bizikleta gainean pentsatzeko denbora handia dago". Ez da bakarrik izango, hala ere. Iruñera jo zuen "Zapa" zapa-tari ezagunak ere. "Bai; baina hura neskarengatik joan zen". Eta Nafarroako hiriburuan ez da kexu Nandus. "Giro atsegina dago bertan. Iruñea Gasteiz baino naturalagoa da. Iruñeko gehienak bertakoak edo nafarrak dira. Nafar giroa oso sustraituta dago. Gasteizen, berriz, kanpoko asko dago. Arabar kutsurik ez dago".

Duela bost bat urte lagunartean egin zenuen Gasteizko marathoi-erdia. Bost bat lagun zineten eta hitz bat osatzen zenuten paparrean idatzitako letrekin: IN-SU-MI-SI-OA. Azkenputz egin zenuten. Hori baino gaitasun fisiko handiago beharko da hogei hilabete bizikleta gainean emateko, ala?

Ez duzu zertan prestatuta joan behar. Bizikletaz ibili behar duzu, baina ez duzu markarik hautsi behar. Lasai ibili eta egiten dituzun kilometroak egin, eta lasai: 60 kilometro? 40? Ez du ardurarik.

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo
platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pta
Betiko kazuelatxoak*

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Noiz arte iraun behar duzu horrela?

Zahartu arte jarraituko dut horrela. Edo gustoko neska aurkitu arte.

Noiz aurkituko duzu?

Begira, Lesakan barnetegian nengoela, kartak bota zizkidan bertako batek. Hark esan zidan gehiegi eskatzen diodala nire inguruko jendeari. Nire inguruko neskei ere bai. Hark esan zuen: "Oso goian jarrita duzu langa. Jeitsi egin behar duzu. Eta ezkondu nahi baduzu, jeitsi beharko duzu!".

Zure ibilaldiaren alderdirik onena?

Bidaia bera. Diapositibak hartu eta egunik egun gogoratzen dut. Eta hona etorri berritan, gauean esnatzen nintzen eta pentsatzen nuen: "Non nago? Patagonian edo Txilen edo...". Dena den, aurreko bidaian txokea handiago izan zen.

Liburu gomendagarriarik ibil-tariarentzat?

Asko. Eta emakumeentzat ere bai: "Viajar sola". "Años Luz" agentziak ere liburu onak argitaratu ditu. Edo "Altair" aldizkaria, bestela.

Zer moduzkoak dira "Trotamundos" gidak?

Txarrak.

Eskutitz asko idatzi omen duzu, gutxi jaso...

E. Han, beharra sentitzen duzu. Idazten duzu hona eta zain zaude: "Ea zer kontatzen duten handik!". Hemen, berriz, ba al dago idazteko astirik? Jende gutxi hartzen du idazteko konpromezua. Batzuek, bai; enbaxada gehienetan jaso ditut horien eskutitzak: fin-fin idatzi dute. Hemengo bizimodua oso

gogorra da, ez dago astirik.

Urtero egiten duzu bidaia?

Horren handia ez, baina beti egiten dut zer edo zer.

Ameriketan horrenbeste euskaldun direnez, haien babesa izan zenezake, beharbada. Euskal etxeak eta...

Los Angelesen bertako euskaldunekin egon ginen, Chinon. Eta Euskal Telebistako korrespondentarekin izan ginen, Iñaki Bizkarrarekin. Oso jatorra. Berak eraman gintuen euskal etxera. Iparraldekoak dira, han, gehienak. Oso ondo gordetzen dituzte ohiturak eta hizkuntza eta. Kartatan ari ziren gu iritsi ginenean. Oso ondo portatu ziren. San Frantziskon, berriz, ez. Badakit niretzako eskutitzak heldu zirela, baina ez zizkidaten eman. Hurrena, bertako idazkariarekin hitzegin nuen eta itzuli egin zituztela esan zidan.

Marineroek emaztegaia uzten omen dute portu bakoitzean... Eta zuk?

Bat! Liman. Hemen jendeak ezagutzen nau eta ondo sartzen naiz harremanetan, izan mutilekin zein neskekin. Han,

berriz, ezagutzen ez nautela eta: "Eta bizikletan, e?". Jendea zureganatzen duzu. Eta Liman gertatu zitzaidan, txiletar batekin. Dena dela, Euskal Herriko neskak gehiago gustatzen zaizkit.

Hainbat lekutan ibili zara eta jan duzu. Menu goxo bat aginduko bagenizu?

Alaskako arraina, Mexikoko burritoak, Peruko cebiche-a - arraina da-, Argentinako haragia eta Txileko ardoa.

Postrerik ez dago paraje horietan?

Egon bai, baina aurrekoa jan eta gero, gogorik ez.

Konpainia?

Neska bat. Euskalduna bada, hobe. Hangoak exotikoak dira guretzat baina askotan gogoratzen nintzen hemengoez: aurpegiak, izateko moduak, hizkuntza...

Jai goizetan zein duzu plana?

Mendira joatea edo lan egitea. Lana? hitzaldiak prestatu, diapositibak, idatzi...

Zure agenda politikoena bezain bete dago? Ama ere,**idazkari etxean...**

Amari gustatzen zaio hori. Nik agenda bete daukat baina batzuetan oso gustora betetzen ditut konpromezuak. Beste batzuetan, horixe besterik ez dira: konpromezuak.

Munduak badu soluziorik? Desberdintasunak, batzuen aberastasuna, besteen miseria, hondamendi ekologikoa...

Soluziobiderik ez. Eta gu geu gara errudun. Euskal Herrian bertan ere, nor bizi liteke 40.000 pezetarekin? Duela zazpi-zortzi urte, euskarazko irakasle batzuek 60.000 pezeta kobratzen genuen eta aski genuen horrekin: egunero bizitzeko, oporretara joateko eta, noizean behin -oso noizean behin-, afariak egiteko. Gaur egun, afariak eta poteoa eginez gero, dirua ez da iristen. Europan sartu gaituzte; inpuestoak? egurra alde guztietatik. Pisua, urrea baino garestiago; pisua erostea zeure bizitza hipotekatzea da. Zer egin nahi dute? Nora goaz? Irakurri al duzu Justo de la Cuevak idatzitako liburu hori, "El no radical vasco al capitalismo mundial"? Irakurri, oso ona duzu.

Miel Anjel Elustondo



e
g
u
n
e
k
o

Peru 8
22 60 50
Jose Mardones 8
26 35 40
Arana 30
25 24 00



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

anima
zaitez

ækⁿ

Gasteiz gero eta euskaldunagoa

URTERO BEZALA

aurrematrikulazio kanpaina iristean gurasoek beren seme-alaben eskolaratzeari ekin behar izaten diote. Eta ikastetxea hautatzearekin batera, urtero kezka bera sortzen da: zein eredu aukeratu dugu gure seme-alabentzat?

Aurten gainera, Eskola Mapa berriaren ezarketa dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa izango da ondo aukeratzea, izan ere, ume askoren hizkuntz geroa baldintzatuko baitu horrek.

Hori guztia kontuan izanik Geu elkartearen aurtengo kanpaina aurrekoak baino zabalagoa izan da: ez da soilik 3 urteko haurrei zuzendua izan baizik eta adin guztietako neska-mutilengana iristen saiatu dira.

Aurtengo berezitasunak alde batera utzita, ordea, kanpaina honen bultzatzaileek datu bat azpimarratu nahi dute: euskal ereduak indartuz doaz Araban. Zenbakiek ez dute zalantzarako biderik ematen. Ikus, bestela ondoko taula.



Xabier Montiel:

<<A ereduko ikasleei iruzur galanta egiten zaie eredu hori eskainiz>>

AURREMATRIKULAZIO kanpainaren nondik-norakoak gertuagotik ezagutzeko, Xabier Montiel Geu elkarteak kidearengana jo dugu. Itxaropentsu agertu zaigu. Izan ere, datuei kasu eginez gero, Gasteiz euskalduna lortzeko bidean baiera.

Zein berezitasun izan du aurtengo aurrematrikulazio kanpainak?

Aurten adin desberdinetako neska-mutilen-

gana heldu behar genuenez, kanpaina berezia diseinatu genuen guztiengana iristeko asmoz. Alde batetik, gurasoei aurrematrikulazioaren kontua gogorarazteko, eguneroko prentsa eta kaleko hormairudiak erabili ditugu.

Horrez gain, Bigarren Hezkuntzan eta Ertainetan ikasten ari diren ikasleei esku-titz bana banatu zaie. Gutun honek bi alde ditu: batetik gurasoak animatzen ditugu berriro beren seme-alabak euskaraz matri-

K2

KIROLDEGIA

CENTRO DEPORTIVO

C/O COMANDANTE IZARDUY, 18. Tfno: 545/23 05 38
01005 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Tokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

kula ditzaten; bestetik, ikasleei, euren egoera beretik pasa diren beste gazteen eritziak eman dizkiegu. Eritzi hauekin zera azpimarratu nahi genuen: euskaraz ikastea ez dela gehitzen zaien beste zailtasun bat. Aitzitik, ikasketak euskaraz egitea, erdaraz ikastea bezain erraza edo zaila dela adierazi nahi genien. B eta D ereduko ikastetxe guztietan banatu dira gutun hauek.

Azkenik, 3 urtekoen matrikulazioari dagokionez, aurtan ez dugu datorren kurtsorako izena emango duten haurren zerrenda lortzerik izan. Beraz, esku orri bat atera dugu eta haurtzaindegietan banatu ditugu. Kontuan hartzekoa da iaz, Arabako hiru urteko haurren %72 euskaraz matrikulatu zela.

Beraz, euskal ereduak indartzen doaz, ezta?

Portzentaiak ikusiz gero, begibistakoa da euskal ereduaren gorakada. Aitortu behar da, Gasteizen izugarrizko apostua egin dela haurrak euskal ereduaren matrikulatzeko. Ezagutza bermatu nahi badugu, gainera, derrigorrez hezkuntzan ahalegin berezia egin behar dugu. Gure goiburua honako hau litzateke: Gasteiz elebiduna


nahi badugu, derrigorrez ezagutza bermatu beharra daukagu eskola-ikastoletan.

Gorakada hori nola baloratzen duzue?

Guretzat pozgarria da A ereduaren gutxitzen ari dela ikustea. Izan ere, A ereduko ikasleei iruzur galanta egiten baitzaie eredu hori eskainiz. Elebitasunera doan gizarte batean ikasle elebidunak sortzen ez dituen hezkuntza ereduari eustea kalterako da. Geroan administrazioari erantzukizuna eskatuko zaio.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Hezkuntzan eta gainerako arlotan egiten ari garen ahaleginaren ondorioz, Gasteiz gero eta euskaldunagoa izatea espero dugu eta etorkizunari begira guztiz itxaropentsu gaude. Ezagutza bermatzen bada, hiritarren kopuru handi bat euskalduna izango da eta euskara erabiltzeko aukera izango du. 15 urteren buruan, adibidez, gizarteko hizkuntza-banaketa egun duen desoreka gutxitu egingo da. Erabilpenarena beste kontu bat da. Baina horretarako gaude Geu bezalako elkarteak, ekintza eta asmo berriak aurrera eramateko.



Floridako altxorra !

35

adaka **madinabeitia**

altzariak • apaindurak
Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Medor herriari laguntza

GASTEIZKO TALDE BATEK BERE GAIN HARTU DU EMAKUMEEN HEZIKETARAKO IKASTETXE BAT HERRIAREN ARDURA



“euskaldun fededun’ zioen euskal esaera ezagun batek. Gaur egun, aldiz, gehienentzat esaldi hori zaharkitua geratu da eta ez du inolako egiazkotasunik. Hala ere, badira gure artean, oraindik, fedean sakondu eta euskara zabaltzeko lanean gogor saiatzen direnak. Hurrengo lerroetan, Gasteizko kristau talde batek egindako elkartasun kanpaina bati buruz hitzegino dizuegu.

GASTEIZKO EL PILARREKO

parrokian kristau talde berezi bat aurkitu dugu: fededunak eta euskaldunak izatea da beren ezaugarri nagusia. Gazte talde euskaldun honek, fedea bultzaturik, urte mordoan darama elkartasun ekintzak burutzen. Sei urte igaro dira Eskuak Elkarturik (Manos Unidas) erakundearen proiektu bati lehen aldiz laguntzen hasi zirenetik. Orduz gozotik, urtero herrialde

txirolei laguntzeko Manos Unidas-ek antolatutako zenbait egitasmori euren sostengua eman die El Pilar parrokiako talde honek.

Aurten, ordea, beste urrats bat gehiago eman nahi izan dute. Sostengua ezezik Haitiko Medor herrian ikastetxe baten oinarritzeko ekipamendua egiteko behar den dirua lortzeko ardura ere beregain hartu dute. Eta horretan ari dira buru-

belarri azkenaldian, horrela aitortu digu behintzat Xabier Gorostiza talde horretako partaideak: “750.000 pezeta inguru lortu behar ditugu emakumeen sustapenerako izango den ikastetxe baten ekipamendua ordaintzeko. Ikastetxea Haitiko Medor herrian bizi diren emakumeentzat izango da. Guk egitasmo hau aurrera ateratzeko konpromezua hartu dugu eta gure helburua betetzea espero dugu”.

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Dirutza handiegia ez bada ere, lan asko egin behar da diru hori eskuratzeko. "Urtero apirilean saltzen ditugun boletoez gain aurtien euskara hutsean egindako agenda bat ere argitaratu dugu". 300 ale atera zituzten hasieran baina jendeak egindako harrera ona ikusita beste 75 ale gehiago kaleratu zituzten. Agenda oso osorik beraiek egin dute. "Fotokopiaketa ezik gainerako guztia guk egin dugu. Enkuadernazioa eta guzti" dio harro Xabierrek. 500 pezetan saldu dute eta horrekin diru askorik irabazi ez badute ere, pozik geratu dira egindako lanarekin. "Agendarena bete nahi genuen ametsa izan da" gaineratzen du gazteak.

Beste berrikuntza bat ere badute. Aurtien, lehen aldiz, gosearen aurkako afaria antolatu dute. Afaria martxoan egingo dute eta, pentsa dezakezue, ez da luxozkoa izango. "Makarroiak, sagarra, ogi pusketa bat eta ura izango da afari horretako menua. Afal ostean jaialdi bat egingo da, trikitilari eta musika talde batekin. Afaria Corazonistas jantokian egingo da eta 200 lagunentzat izango da lekua. 500 pezetako dirulaguntza eskatu-

ko da eta edonork izango du bertara joateko aukera.

Xabierrek argi utzi nahi du, hala ere, dena ez dela dirua biltzea. "Diru kopuru bat biltzeaz gain jendea sentzibilizatu eta hirugarren munduko herrien egoera nola-koa den erakutsi nahi dugu". Gateiztarrek egitasmoaren xehetasunak gertutik jarraitzeko Medor herrian dauden Jesus Ume-raren Teresa Deuna kongregazioko mojekin harreman zuzena dute. "Eskutitzen bidez hango informazioa jasotzen dugu eta gero hemen sendotzako taldeetan eta zabaltzen ahalegintzen gara".

El Pilar parrokiako taldeaz gain Koldo Mitxelenako Elkartasun taldea eta Ikas Bidea ikastolako eta Mendizabala institutoko Erligio heziketa ikaslegoak ere parte hartzen dute kanpaina honetan. Ikastetxe hauetako zenbait ikaslek hainbat ekintza burutuko dituzte ikasturtean zehar proiektua aurrera ateratzen laguntzeko.

El Pilar-eko euskara taldea

Olabide ikastolatik etorritako gazteek osatzen dute batez ere kristau talde hau. "Fedean aurrera egitearekin batera, euskara indartzea da gure beste helburuetariko bat. Hasieran talde txikia ginen eta egun hogeitaz gero eta 150 neska-mutil inguru biltzen gara hemen". Xabierrek adierazi digunez, jendeak ez du ondo ulertzen egiten dutena baina piskanaka parrokiaren ere euskara gero eta gehiago eskatzen dela baieztatu digu.

Gasteizen badira antzeko zereginetan jarduten duten beste hainbat talde ere. "Gasteizen lan haundia egiten da arlo honetan eta jende ugari parte hartzen du". Guztiek gauza bat dute amankomunean: behar larrian dauden herriei laguntza desinteresatua eskaintzea. ONG eta antzeko taldeekin alderatuz, ordea, badute hauek azpian desberdintasun nagusi bat: "Parrokia batean sartuta gaude eta sendo-

tza talde bat gara, fedea mugiarazten eta bultzatzen gaitu horrelako gauzak egitera. Gizarte honetan Jesus bezalako eredu bat aldarrikatzea oso erradikala izan daitekeela iruditzen baitzaigu".

Xabier Zabaleta

Medor herriari buruzko zenbait datu interegarri:

- ☐ Medor herriak 14.000 biztanle ditu eta horietatik %85 analfabetoa da.
- ☐ Herri horretara oinez edo zaldiz baino ezin daiteke iritsi eta gertuen dagoen herria 30 kilometrorara dago.
- ☐ Nekazaritza da bertako ekonomiaren oinarria eta biztanlegoaren aktibitate nagusia.
- ☐ Gabezia ugari dituen osasun zentro bakarra dago eta ez dute ez instalazio elektrikorik ezta ur korronterik ere.
- ☐ 8 urte azpiko umeen heriotze-tasa %50-60koa da.

(*) *Argazkian: duela gutxi El Pilarrekoei Medor herritik bidalitako argazkia*



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

Itziar Fernandez:

«Emakundek erakundeen barruko lana egiten du, kalea talde feministen esparrua da»

m

martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko den aitzakiarekin Emakundera jo du aurten GEU GASTEIZek Itziar Fernandez Idazkari Nagusiarekin hitz egitera eta hona hemen berak esandakoak.



Zer da zuretzako martxoaren 8a?

Zoritzarrez, emakumearen egoerari buruz indar gehiagorekin hitz egiteko eguna da. Zoritzarrez diot, egun hori ospatu beharrean, urteko gainontzeko egun guztientan lana egin eta egoera normaltea nahiago nukelako. Baina alderantziz izaten da eta, beraz, hobe horrela ezer ez izatea baino. Oraindik diskriminazioa eta sexismoa dago, tratu txarrak hor daude, eta egun hori beharrezkoa da.

Iragan urteko udazkenean eraso asko izan ziren Gasteizen, Emakundek hori hartuko al du abiapuntutzat aurtengo Emakumearen Eguneko ospakizunei begira?

Gasteiz iazko punturik beltzena izan zen. Baina, gure kasuan, martxoaren 8aren inguruko gaia beste bat izango da. Erasoen gaiaren inguruan, udazken aldera tratu txarrei buruzko kanpaina berezia egiteko asmoa dugu. Martxoaren 8ari begira, ordea, jende gaztearen arazoari heldu nahi diogu: gazteek arazo handiak dituzte eta etorkizun beltza dute. Baina, gainera, oso gauza kuriosoa gertatzen ari da; 18 eta 25 urte bitartekoek ez dute sexismoaren arazoa ikusten. Neska-mutil horiek oraindik gurasoen etxean bizi dira eta ez dute lanik egiten. Neskek 'guk ez dugu arazorik' esaten dute eta mutilek 'baina hauek zer gehiago nahi

“ **guri ez dagokigu zerbitzuak ematea, emakume guztiek zerbitzu horiek erabili ahal izango dituztela bermatzea baizik** ”

dute?'. Bereziki gazte horiei zuzendutako kanpaina bat egin nahi dugu. Dena den, ez da lan erreza izango, azalean arazorik ikusten ez delako.

Lehen ezagutzen genituen erasoak kalean gertatzen ziren. Iaz Gasteizen izandakoak, aldiz, bikote barruan gertatu ziren. Emakundek honen zergatia aztertu al du?

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia



Jose Lejarreta,
9 behea

tfnoa 28 41 96

**01005
GASTEIZ**

Bikote barruko eraso eta bortxaketak ez dira, zoritxarrez, gauza berria. Momentu honetan emakumeok gure duintasunaz kontzientzia handiagoa dugu eta, horren ondorioz, jauzi kualitatibo bat gertatzen ari da: salaketa gehiago daude. Burutu diren ikerketen arabera, bikote barruan tratatu txarrak jasaten dituen emakumeak txikitan ere horrelako esperientziaren bat bizi izan du. Horrelako egoeratan hazitako emakumeek 'normaltzat' jotzen dute jipoiak jasotzea eta ez dute egoera aldatzeko ahaleginik egiten. Erasotzaileak ere, gehienetan, txikitan erasoak nozitutako haurrak izaten dira.

Konponbide bila

Emakume batek bi hilabeteren buruan 17 eraso salatu dituela entzutean zer pentsateen duzu lehenengo: nola egin dezakeen gizon batek horrelakorik? Edo, nola jasan dezake emakume bat egoera hori?

Ez, galdera nagusia beste hau litzateke: nola geldituko dugu hau? Nola lagun dezakegu? Gure zerbitzu juridikoek lehen momentuko laguntza eskaintzen diote emakumeari horrelako kasuetan, nahiz eta guk horrelako gauzak ez kale-ratu oso gauza pertsonalak direlako. Gure lehenengo kezka emakumea da eta laguntza ematen diogu: abokatua, pisua, laguntza psikologikoa, dirua... Baina horretaz aparte erasotzaileaz ere kezkatzen gara. Nik argi daukat gartze-la ez dela konponbidea, ez delako bergizarteratzearen politika argi bat lantzen. Estatu Batuetako eta Kanadako esperientziek erasotzailea ere kontutan hartu behar dela frogatzen dute, bestela ez da ezer lortzen.

Emakunderen lana dirulaguntzak ematea besterik ez dela kritikatzeko du zenbait. Egiten duzuen lana nahikoa ezagutzen dela uste duzu?

Jendeak ondo ezagutzen ez gaituenek Emakunderen inguruko fantasiak sortu dira, eta hori ez da ona. Emakunde erakunde bultzatzailea da: guri ez dagokigu zerbitzuak ematea baizik eta emakume guztiak zerbitzu horiek erabili ahal izango dituztela bermatzea. Hori lortzeko Diputazioekin batera lan egi-

ten dugu, beraienak baitira Asistentzia Sozialaren inguruko konpetentziak.

Emakunderen lanak, oro har, lau ardatz ditu: Emakunde burutu eta Jaurilaritzak onartu behar duen plangintza aurrera eramane, erakundeen lana koordinatu, gure funtzio propioak (argitalpena, zerbitzu juridikoa, ikerketak,...) eta emakume taldeak indartu.

Zein da talde feministekin duzuen harremana?

Nik uste oso harreman irekiak ditugula. Duela hiru urte sortu genuen, guk nahi izan genuelako ez legeak agintzen duela. Zuzendaritza Kontseiluarekin bildu aurretik, talde feministek parte hartzen duten komisiorekin biltzen gara beti.

“kupoena Europako iparraldeko estatuetan sortu zen duela 25 urte eta orain, Islandian gizonezkoentzako kuota jarri behar izan dute”



Ez gara beti bat etortzen baina, normalean, adostasun puntuak ikusten ditugu. Ni neu, gainera, oso gustora sentitzen naiz beraiekin. Azken finean feministak gara eta horregatik gaude hemen, ezta? Emakunde jaio zenean feminismo instituzionalarekin ados ez zeudenak agertu ziren eta oraindik ere batzuek horrela pentsatzen dute. Baina, guk argi daukagu gure esparrua instituzio barrukoa dela eta kalea beraia dela. Hori bai, guk kaleko ahotsa erakundeetara, boterea dutenenengana eramaten saiatu behar dugu.

Zein puntutaraino dauka Emakunderen jarrerak zer ikusia boterean dagoen indar politikoarekin?

Emakunde Lehendakariaren menpe dago. Eusko Jaurilaritzan hiru alderdi daude eta guk EAJren babesa daukagu.

Lehendakariak izendatuak gara Txaro Arteaga eta biok. Berak nahi balu bihar bertan kalean egon gintezke. Dena den, ez dugu sekula presiorik izan eta ez dakit zergatik gertatzen den hori: edo interesatzen ez zaielako (hau interpretazio maltzurra da) edo gure lanarekin ados daudelako. Hala ere, arazoak eta eztabaidak ere izan ditugu: aurrekontuak, gure papera,...Guk proiektu hau aurrera ateratzeko behar adina langile eskatzen ditugu eta aurtun sei pertsona gehiago sartzea lortu dugu. Baina, hori, hor dagoen borroka da. Bestetik, ni ez naiz alderdikidea baina garbi daukat nire lana Euskal Herrian eta EAJn kokatzen dela.

Hautagai zerrendak direla eta, zer iruditzen zaizu %25aren kupoa?

Ekontza positiboaren barruan kokatzen duan erizpidea da eta alde horretatik ondo iruditzen zait. Modurik egokiena ez izan arren kuporik gabe askoz emakume gutxiago izango genituen hautagai. Kupoena Europako iparraldeko estatuetan sortu zen duela 25 urte eta orain, Islandian gizonezkoentzako kuota jarri behar izan dute. Gainera, hori lortzeko, alderdi guztietako emakumeak urte betez jardun zuten lanean gizonek jakin gabe.

Leire Lopez de Aberasturi



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

**SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK**

Kontu kontalarit

joxe Arratibel Zurutuza praile beneditarraren 'Kontu Zarrak', 1980an La Gran Enciclopedia Vascan argitaratuak, 'Kontu Zaharrak' bihurtu dira Miel Anjel Elustondok edizio berrian euskara eguneratzeko egindako ahaleginari esker. Ipuin bilduma hau osatzeko bere Ataungo jaiotetxean neguko gau luzeetan aitari, amari edo auzokoren bati entzundako kontuak bildu eta paperean jarri zituen. Hogeitabi ipuinak irakurriak izateko baino gehiago, ikasiak eta ondoren kontatuak izateko pentsaturik omen daude, "ez baita gauza bera kontu bat irakurtzea edo entzutea". Joxe Arratibelen ustez, kontalariari adi-adi begira egon eta haren keinuak ikustean giro berezi bat sortzen da.



"KONTUAK AHOZ azaltzeko tradizioa hiltzorian edo dagoeneko hilda dago". Hala dio, tristaturik, Aita Arratibelek egungo egoera bere haurtzaro eta gaztaroarekin alderatu eta gero. "Gaur, orduko ohitura asko galdu dira. Haurrek neguan ere ez dute gau luzerik. Goizean eskolara joateko jaiki egin behar eta gehienetan goiz joaten dira ohera. Orain ez dago lehen bezalako arto zuriketak ez eta auzokoak biltzen zituen beste lanik. Egun fabrikako orduak agintzen dute.

Gainera, gaur egun ez dago nire haurtzaroko iluntasunik eta Ataun ondoko hainbat lekuk orduan zuen giro misteriotsua galdu egin dute".

Eta halaxe da. Oraingo haurrek ez dute gehiago sinisten Osin Beltzan edozein itxura har dezaketen iraberik dagoenik, ez eta Mandabitan sorginik dagoenik ere. Giro misteriotsu honetan bizi izan zen Joxe Arratibel hamasei urterekin Lazkao-ko fraileen eskolara joan zen arte.

**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
**Auzoko pintxorik
onenak**
ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

**ALDE
ZAHARRA**
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

zaren iraungipena

Behin praileen egoitzara egindako bisita batean, inprenta bat ikusi eta erabat lilurata, makina harekin lan egiteko ametsa buruan, beneditarrangana jo zuen Joxek. Azkenean inprimatzaile bilakatu beharrean, ikasteari ekin behar izan zion. "Ez nuen behin ere inprenta horretan lanik egin".

Kontatuak izateko kontuak

Aita Arratibel kontuak kontatuak izatearen defendatzaile sutsua da, era honetan, ipuinek beren indar osoa agertzen dutelako. "Zenbaitetan ipuinak irakurtzen ditut. Satrustegirenak eta beste batzurenak, baina gozotasun hura falta zaie. Ez da gauza bera kontu bat irakurtzea edo entzutea. Kontatzen ari denari begiratzea eta haren keinuak ikustea... beste giro bat da. Hori erdaraz ere gertatzen da. Poesia bat zuk irakurtzea edota norbaitek errezitatzea oso desberdina den bezala".

Zentzu honetan, asko kostata ekin zion Aita Arratibelek berak zekizkien kontuak idazteari. "Lazkaon praile bezala nengoe-

nean, mutikoekin mendira joaten ginen eta nik Txerri beltza eta horrelako ipuinak kontatzen nizkien. Beranduago, mutiko izandakoak lekaide izatera heldu eta askotan eskatzen zidaten kontu zahar haiek idazteko. Nik beti esaten nien kontatu bai baina idatzi... ezin nuela. Magnetofoian hartuko zizkidatela esan zidaten orduan, baina horrela ere kontakizunerako beharrezko den giroa faltan izango nuen. Nik haur sail bat behar nuen aurrean, haien aurpegiak ikusi, haien galderak entzun eta abar".

Hala ere, orain hogeitabost bat urte Joxe Mari San Sebastian, 'Latxaga', Estibalize-ra joaten hasi zen Joxe Arratibelekin solasean aritzeko. Behin, Goñiko Zaldunaren kontua nire herrian kontatzen zen bezala kontatu nion eta berak bultzatu ninduen hura idaztera. Berak 'Príncipe de Viana' aldizkarira bidali zuen. Ondoren kontuak idazten hasi nintzen baina liburu bat sortzeko pentsamendurik gabe. 1974 inguruan Latxaga jaunak Retanari nire berri eman eta nire ipuinak interesgarriak izan zitezkeela esan zion. Egun batean hemen

azaldu ziren biak eta nire kontu zahar saila Retanari agertu genion. Berak pozik argitaratuko zuela agindu zuen". Esan eta egin.



ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



Andre Maria Plaza/Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenera esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina

(*) enkargu lenteak izan ezik

mostrongotxoak

ikustezina izan nahi nuke

txikitatik, filmeen eraginez edo, askok eta askok ikustezin bihurtzea amets egin dugu. Izugarri dibertigarria eta guztiz desiragarria litzateke normalean egin ezin ditugun gauzak egiteko horrelako aukera izatea: arerioak zirikatu, gozoki dendatan sartu eta nahi dugun guztia jan, notak etxera heltzerakoan desagertu inork ez molestatzeko, irakasleen karpetan lasai asko hurrengo azterketa bilatu edota antzeko beste mila gauza.



Eta ikustezina izatearen balizko egoera honekin Barrutia Ikastolara joan gara, bertako mostrongotxoaren irudimen paregabeari desafio egin asmoz:

Ikustezin bihurtuz gero, nolako gauzak egingo zenituzke?

BIDAIA MIRESGARRI
bat egingo nuke munduan

zehar: Ipar Polora, Australiara... joango nintzateke hegazkinetan ordaindu gabe igo naitekeela aprobeztatuz. Bueltatzerakoan, Alaves taldearen partiduetan kontrako golak gelditu eta aldekoak sartuko nituzke. Horrela Alaves lehen mailara igoko litzateke. "Txapeldunen Kopa" irabazteaz gain, munduko futbol talderik onena bilakatuko litzateke.

Ander, 10 urte

ALUKERIAK egitearekin batera, Lukas irakasleari 1.234.999 kopiaketa bidaliko nizkioke.

Olatz, 10 urte

ORDAINDU gabe, Eurodisneyrantz dihoan hegazkin batetan sartuko nintzateke. Hau gutxi balitz, bideojolas-dendatan bideojolasez ondo eta oparoki hornituko nintzateke.

Iker, 10 urte

DOHAINIK hainbait

gauza eskuratuko nituzke: gozokiak, errusiar mendi bat, jostailu-denda haundi bat, eta igerilekua duen etxebizitza bat, besteak beste.

Nahikari, 10 urte.

ETXERA JOAN eta oihuka hasiko nintzateke. Kasurik egingo ez balidate hegan hasi eta berriz nire kolorea berreskuratuko nuke. Horrez gain, arrebari liburuak eta panpinak izkutatuko nizkioke. Maisuari ere, frogak lapurtuko nizkioke eta

bar • restaurante
Portal del Rey 9
GASTEIZ
albéniz

intrale
MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea
Kutxileria 23



bat hartu eta planetaz planeta ibiliko nintzateke. Tankeak eta gudarako tramankulu guztiak deseuztatuko nituzke.

Unai, 10 urte

IKUSTEZIN bihurtuko banintz, astirik galdu gabe, loterian tranpa egingo nuke saria neuk lortzeko. A! eta noski, ikastolara ez nintzateke joango.

Itxaso M., 10 urte

TXANTXA asko egingo nituzke. Ikustezina izango banintz jendea joko nuke niretzat inolako arriskurik izan gabe. Gauzak lekuz mugituko nituzke eta nesken aldageletan sartuko nintzateke. Eta garrantzitsuen dena, jendea Topacio teleaioa ikustera derrigortuko nuke.

Alvaro, 10 urte

AZTERKETEN notak aldatu ezezik, ahizpari telebistaren urrutiko eragingailua ere izkutatuko nioke.

Itxaso L., 10 urte

NOU CAMP zelaian sartuko nintzateke inor konturatu gabe, barrutik den-dena ondo ezagutzeko. Jendeari alukeriak egin ondoren, txiroak dirua emanez lagunduko nituzke.

Alex, 11 urte

NIRE LAGUNEI egiten dizkiodan trastakeriak edonori egingo nizkioke. Esaterako, fantasma gisa ibiliko nintzateke jendea ikaratzeko. Klasera joan eta hitzik egin gabe gaiztakeriak egingo nituzke. Gainerako umeek zerbait arraroa gertatzen ari dela pentsatuko lukete.

Izaskun, 10 urte

Lorea Zurimendi

trukatuko nituzke. Horrela hurrengo egunean... Ta-tzan, ta-tzan... Bikain bat!

Iñaki, 10 urte

IKUSTEZINA banintz etxetik alde egingo nuke eta zineman ordaindu gabe sartuko nintzateke. Filmeak ikusten aspertu arte hantxe egongo nintzateke. Gero kalera irten eta jendea izutu eta espiatuko nuke. Broma asko ere egingo nituzke. Adibidez, irakasleari bere aulkian txintxeta bat jarriko nioke.

Sheila, 10 urte

ANDEREÑOAK klaseak ematen dituen bitartean, irratikaseta martxan jarriko nuke eta arbelean nahi izango nukeena idatziko nuke.

Marlena, 10 urte

JANARIA ETA animaliak lapurtu ostean, oxigeno bonbona

Umeak zaintzen ditugu

GAUEZ

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Arrate 25 64 01 (ostegun
eta ostiraletan)



Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

AURTEN EGOITZA BERRIA ZABALDUKO DUTE LAKUAN

Galiza aspalditik dago Gasteizen

“g

alizia Calidade”

orain dela urte pare bat publikitate kanpaina batek errepikatzen zuen leloa da. Kanpaina horren bidez hedabideek Galiziar herriaren dohaiak ezagutarazi zizkiguten. Bestalde, guztiok entzun dugu noiz edo noiz honako beste esaera hau: “Leku guztietan galiziar bat dago”. Eta gure hirian ere galiziarrek badira, eta ez gutxi gainera: ia 5.000 dira gure artean bizi direnak eta aspaldidanik dute beren elkarteak. Jakinminez bertara jo dugu Galiziako gasteiztar hauen nondik-norakoak hobe ezagutzeko.



EGOITZAN SARTU eta harriturik geratu gara; leku deigarria da, nola kanpoetik hala barrutik. Jendek gainezka dago eta beren hizkuntzan, galegoz, mintzatzen dira. Leku haundia da eta taberna eta jatetxea izateaz gain, biltzeko gela txikiak ere baditu.

Manuel Pampin elkarteko presidenteordeak hartu gaitu eta solasaldiari ekin diogu. Ohi denez, hastapenak gogoratuz hasi gara. Galiziako Etxea sortzeko izan zituzten arrazoiak azaldu dizkigu Pampinek: “Euskadiko zenbait lekutan sortuak

“**lehenengo egoitza
Kutxileria kalean egon zen**”

ziren Galiziako Etxeak. Barakaldokoa izan zen lehena eta Elgoibarrren ere baze goen beste bat. Hori ikusirik Gasteizen ere horrelako etxe bat irekitzea bururatu zitzaigun”. Gasteiza bezala, Euskal herrira industriaren hazkunde garaian galiziar

asko etorri zen eta herri askotan elkarteak sortu zituzten. Euren arteko harremanei eustea da etxe hauen helburua: “Euskadiko Galiziako Etxeen hermandade bat dugu. Hilabetero bilera bat egiten dugu eta urtero Euskadin Galizia eguna ospatzen dugu. Hamaika edizio daramatzagu orain arte. Urtero herrialde batean ospatzen dugu eta guk, adibidez, orain dela 9 urte, Zurbanon egin genuen”.



kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ

**JANTZI ETA
OPARIAK**

Kutxileria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Sortu zenetik bazkide asko izan du elkartek. Unerik onenean 500 bazkide izatera iritsi ziren. Orain, azkenaldion, beherantz jo du kopuru horrek jende asko Galiziara bueltu baita atzera. "Hala ere berrehun bazkide baino gehiago gaude, ia-ia 400 familia. Horiez gain, bazkide izan gabe laguntzera etortzen den jende asko dago".

Euskadi osoko galegoek urtero Galizako eguna ospatzen dugu

Ekintzak

Elkartea, taberna, jatetxea edo biltzeko lekua izateaz gain, ekintza ugari burutzen dituzte galiziarren egoitza honetan. Garrantzitsuenak, dudarik gabe, gaitero eta dantza taldeak dira. Horiek "derrigo-rezkoak" dira Pampinen ustez.

Sorrerako garaitik hona gauzak asko aldatu dira, ordea. "Hasieran elkartea gure hizkuntzan hitz egin ahal izateko erabiltzen genuen, batez ere. Orduan Galiziatik etortzen zenak honera jotzen zuen lan bila. Egun Galiziako enbaxadoreak gara eta gure kultura erakusten dugu gaitero eta dantza taldeen bidez. Auzoetan edo herriko jaietan aritzen gara eta Euskadiko zein Espainiako lehiaketatan parte hartzen dugu".

Bestalde, gazteen mailan futbol talde bat ere badute: "Partaide gehienak galiziarren semeak dira". Elkartekoei, halaber, urtean zehar txangoak, bazkariak eta antzeko ekintzak burutzen dituzte.

Janari eta edari tipikoak ere ezin dira ahaztu, horietatik izaten batira askotan herri bateko ezaugarri ezagunenak. Gali-

hasieran elkartea batik bat galegoz mintzatzeko erabiltzen zuten

ziako etxera joanez gero, pulpoa, enpanadak... eta, nola ez, Galiziako ardo mota guztiak (albariñoarekin hasi eta ribeiroa bitartean) dastatzeko aukera paregabea izango duzu.

Harremanak

Gasteizen badaude hamar herrialde-etxe baino gehiago, eta denekin hartu emana dute galiziarrek. Guztien artean federazio bat osatzen dute eta elkarrekin Autonomien Eguna ospatzen dute.

Euskaldunekiko harremanak oso onak direla eta jende gehiena hemen integratu egin dela azpimarratzen du elkarteko presidente-ordeak: "Euskaldunok eta galiziarrok batzen gaituzten gauza asko ditugu eta, etorri ginenean izan genuen harrerak, asko erretzu zuen integrazioa.

Gure hizkuntza izan arren, gure seme-alaba gehienek euskeraz ikasi nahi dute eta hori ona da. Gaztelania badakite, eta galegoa guk, gurasoek, erakusten diegu" esaten digu tente jarrita Manuelek.

Amaitzeko, futbolari buruz hitz egin dugu eta harro zera azpimarratzen digu: "Galizia da lehen mailan hiru talde dituen autonomia bakarra". Hiru talde galiziarren lehia dela eta, ordea, egunero zale-tuen arteko borroka dute elkartean. Guztiak, hala ere, bat datoz gauza batean: Estatu espainiarrean eta nazioartean Galiziaren izena ezagutarazteko futbola baliagarria da.

David Alvez



HISTORIA APUR BAT



GALIZIARREK aspalditik dute beren elkartea Gasteizen eta bertan aldaketa ugari izan dira urteen joan-etorrian. Hona hemen datu interesgarri batzuk:

Gasteizko Galiziako Etxea 1966. urtean sortu zen. Euskal Herrian horrelako bi etxe baino ez zeuden garai hartan: Barakaldon eta Elgoibarren, hain zuzen ere.

Lehenengo egoitza, 60eko hamarkadan, Kutxileria kalean izan zuten. Hasierako etapa hartan lagunen elkarte bat besterik ez zen.

Handik Desamparadaseko lokal batera pasa ziren. Hemen, jada, bildu eta elkartzeko kontzientzia hartu zuen jendeak; esan dezakegu Gasteizko galiziar guztien kultur elkartea bihurtu zela orduan.

Hiru urte geroago, 1969an alegia, gaur egungo Errota Zaharra auzoan duten egoitzara joan ziren. Urte hauetan elkartearen heldutasuna etorri zen: ekintza ugari burutu eta gazteak hurbiltzen hasi ziren.

Aurten etapa berri bat hastear daude: "Egoitza berri bat eraikitzen ari gara Lakua 13n, Gernikako Arbola kalean. Oraingo egoitzan espazio eza dela eta gauza asko ezin baitugu egin".



HegoAmerikako
jantziak ederrak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

★ *jo ta ke*
TXAPELARRI
TABERNA
kutxillaria 83

Molinillo-Geu Gasteiz aurrez aurre

k

irolen bat madarikatua izan bada, huraxe boxeoa izan da.

Batzuentzat basakeria eta mafia hutsa da; beste batzuentzat, aldiz, kirol noblea. Iritziak iritzi, trasteak hartu eta Gasteiz Boxing gimnasia abiatu gara.

Azken hiru urteetan hamaika kirol agertu dira atal honetan. Hilabetero gai desberdinak kaleratzen saiatu gara, eta egia esan, gaurko protagonista eta kirola aspalditik genituen gogoan.



EZ DUGU BITAN pentsatu, eskularruak jantzi eta Molinillo boxeolariarekin hasi gara hizketan.

Gaur gauean, Molinillo eta Geu Gasteiz izango ditugu aurrez aurre, borroka hamabi asaltokoa izango da. Ez dugu lan erraza izango, gure parean dugun mutila Espainiako txapelduna baita. Dena den, barruan dugun guztia utziko dugu ring gainean. Kanpaia jo bezain pronto, boxeoa ospe txarrari buruz galde egin diogu elkarriketatuari: "Kirol hau ondo ezagutzen ez duenak basatiak garela dio. Hala ere, hori ez da egia, gu ez baikara erasokorrak ring-etik kanpo. Gainera hau arte bat da".

Hori entzun bezain laster, Poli Diaz etorri zaigu gogora. Badakizue, kazetariok trapu zaharrak atera behar mahai gainera. Vallecako Moxalaren izena entzutean gasteiztarraren erantzuna zuzena eta argia izan da: "Boxeoan hasi zenean mutil jatorra zen, baina ospeak kalterik baino ez zion egin. Gaur harroputz hutsa da. Polik ez digu inolako mesederik egin. Ume handi bat da". Ikus dezakezuenek, gaurkoa, arerio indartsua dugu. Hitz gutxi baina esanguratsuak: azkarrak eta gogorrak, bere kolpeak bezalaxe.

“Poli Diaz harroputz hutsa da”

Tu Invernadero

ALDABE 6 BEHEA

tfnoa: 945 14 43 63 - O1001 GASTEIZ

restaurante • jantoki

DOS HERMANOS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano
madre Vedruna, 10
Tfnoa 13 29 34 • 13 44 46

arimo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

Entrenamendu gogorra

Molinillok hispaniar munduko txapelketa irabazi zuen orain hiru hilbete. Orain entrenatzeari utzi dio bolada batez, "atse-dena behar nuen eta". Bere entrenatzailea den Jose Luis Zelaia ez dator bat jarrera horrekin. "Ez dut ezer esango mutilak ondo baitaki zein den nire iritzia". Tira-bira txiki hau alde batera utzi eta boxeolariak hartu du hitza berriro ere: "Eguneroko entrenamendua gogorra da, gustatzen ez bazaizu akabo". Ez dabil oker, ondoko bitxikeriak adierazten duen moduan: "Eharian herrian egiten dut lan eta borroka baino aste batzuk lehenago, korrika joaten naiz lantegira goizero". Alabaina, berehala hasi beharko du lanean datorren borroka heltzeaz baitago. "Beste txapeketa bat irabazteko aukera izan dezakegu, baina oraindik ezin dugu ezer ziurtzat eman", gaineratu digu.

Boxeo kontuetan Gasteiz ez da Las Vegas. Dolarrak eta Mike Tyson, zorionez bestalde, ez dira hemengoak eta Molinillok, txapelduna izan arren, lan egiten jarraitu behar izan du. "Boxeoa ez du bizitzeko beste ematen. Horretarako izarra izateaz gain, Europara irten behar duzu. Estatuan bakan batzuk egin dute hori. Poli Diaz, Castillejo, Navarrok...".

Gauzak honela, Zapa kaleko semeak lanari eutsi behar dio:

"Exebizitza erosten ari naiz eta datorren urtean ezkontzea gustatuko litzaidake" aitortu du 26 urte dauzkan gazte honek.

'Rocky' pelikularen eragina

Arestian esan bezala, gure solaskideak Zapa kalean eman zituen lehen urratsak. Familia umilekoa, bere gurasoek Andaluzia-Madril-Euskal Herria bidaiara egin zuten. Aita, Cadizekoa, kale garbitzailea zen; ama, orduko etxekoandrea. Garai



'Hau boxeolaria baino gehiago leloa da' esaldia entzun behar izan dut

hura gogorarazi diogu. "Gurasoei ez zitzaien boxeoak gustatzen. Hasieran ez nien deus ere esaten, baina behin borrokaren ondorengo kolpeak ikusi eta ohartu egin ziren. Haienez ez da batere atsegina". Antza denez, afizio hau izatearen errua telebistarena izan zen. "Hamabost urte nituela, borroka bat ikusi nuen telebistan, boxeolari haren gorputzak harritu ninduen. Horrek eta Rocky pelikulak gimnasia bultzatu ninduten". Begibistan dago kirol hau ez dela haur aberatsena.

Geu ere gimnasioan izan ginen. Hantxe, Arana auzoan, hamaikaren bat neska-mutil aritzen dira arratsaldero. Horientzat badu gomedorik Molinillok: "Boxeo ez

da dirudiena. Jendeak boxeolaria errespetatzen du, baina ez dakit zergatik, lagun arrunta dela ikusten dutenean tontotzat hartzen dute. Nik 'hau boxeolaria baino gehiago leloa da' esaldia entzun behar izan nuen". Harrigarria entzundakoa. Bestalde, jakin badakigu, gazteak kaleko arriskuetatik aldentzen dituela kirolak.

Elkarrizketa honek gure pentsamoldeak bertan behera utziaz dizkigu. Gasteizko boxeo giroa ikusteko aukera izan dugu eta egia esan ez genuen horrelakorik espero. Lagun jatorrak non-nahi eta horien artean, Molinillo. Borroka gogorra izan bada ere, kiroltasunak agindu du. Hala eta guztiz ere, epaileak amaierako keinua egin baino lehen, instituzioek jasan dute azken kolpea. "Ez digute sosik ematen. Hau ez da kirola, ala?". K.O. Molinilloren alde.

Ismael Diaz de Mendibil



"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

Astrologi aholkularitza
Kinol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Emeflexoterapia
Heastaroak

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnok: 24 26 71 eta 22 93 29

GASTEIZ

PIPERMINA

DENDA

arropa
eta
osagarriak

BEHERAPENAK KUTXI, 81






Cicatriz: adiorik ez!

Urtarrilak 5ean Natxo Etxebarrieta, Cicatriz taldeko abeslaria izan zena, hil zen. Euskal Herriko punk-aren aurpegi ezagunenetariko batek agur esan zigun gaixotasun larri eta luze bat pairatu ondoren. Lehenago Pepin, Pakito

eta Pedrok utzi gintuzten. Egun, Natxoren heriotzarekin, guztiz desagertu zaigu Euskal Herrian musika munduan izan den talde garrantzitsuenetariko bat; lagun askoren iritziz, inportanteena.



BAZEN BEHIN, gure hirian, Cicatriz izeneko talde bat. Bazen behin Rock and Rollaren alde basatiena harro agertzen zuen lagun taldea.

Bazen behin desintoxikazio zentro batean sortu zen laukote punk bat. Makarrena Pedro; maritxuena Pepin. Ikusi eta entzun genituenok onenak zirelakoan geunden. Harroena Pakito zen eta Natxo kabroiena.

Baziren behin heroinak akabatu zituen lau musikari.

Azkena, Natxo, urtarrilaren lehendabiziko egunetan joan zitzaigun Hiesak jota. Lau diska, Rock and Rollaz asetzeko adina kanta, zuzeneko emanaldi dibertigarrienak eta betegabeko zenbait proiektu atzean gelditu dira. Natxo gaixo zegoen bai, baina gaixotasunak ez zion inoiz aurrerantz jarraitzeko gogoia lapurtu.

Cicatrizekoek 80eko hamarkadan Euskal Herriko diska garrantzitsuena gauzatu zuten, iskanbila zaratzatsuenak sortu zituzten, zuzeneko emankizun alaienak

eskaini eta jota lotsagabeenak abestu zizkiguten. Baina estraineako urteetako abiadura hura bat-batean bukatu zen; Pepin jatorrizko kitarrajolearen heriotza lehenengo, Natxoren istripua gero, Pakito eta Pedoren desagertzea ondoren. Natxo bakarrik gelditu zen, erreta, apurtuta, Errege Egun bezpera arte.

Izakera berezia

Iazko martxoan, Natxok Eginetik egin-dako elkarrizketa batean esaten zituenak argi erakusten dute taldeak nolako nortasuna

Gasteizko Paperdenda Berria



- ⇒ 500 m²-ko paperdenda
- ⇒ Ikasmateriala
- ⇒ Opariak eta ofimatika
- ⇒ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaiak elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna



Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

suna zuen:

"Baztertutako benetako taldea ginen; bazterrekoak eta alaiak".

"Erreta nago Cicatrizek jende askori eman baitio dirua, baina guretzako ez dugu inoiz ezer izan".

"Nire lagunaren heriotzaren ostean konturatu naiz kaka baino ez garela. Ez garela ezer".

Kitarra lanetan Pepinen ordezkari zen Goar Inurrietak ere, hitz gordinak erabiltzen zituen taldea deskribatzeko.

"Natxo topera bizi zen. Punkia zen, oinetatik bururaino. Cicatrizen taldekide guztiak belaunaldi baten isla izan dira, punk mugimenduaren azken ondorioak bizi zituen balaunaldiarena, hain zuzen ere".

Oroitzapenak

Gogoratzen dugu La Blanca polikiroldegian, Hala Bedi irratia antolaturik, Cicatriz zuzenean ikusi genuen lehenengo aldia. Baita Decibelios eta Hertzainak taldeekin eskenatokia konpartituz Ermuan eskainitako kontzertu aparta ere.

Oroimenean dugu lehenengo diskoa; Kortatu, Kontuz Hi eta Jotakie taldeekin batera gauzatu zutena.

Angelic Up Starts, Hertzainak eta Cicatriz taldeek Mendizorrotzan burutu zuten kontzertua ere ezin izango dugu inoiz ahaztu; ezta hamar minutu iraun zuen Bilboko jaietako beste hura ere. "Tiene Vitoria..." edota "Tocame los cataplines que vengo de Fustiñana..." esaldiak Natxoren eztarrian entzuten genituen bakoitzaren ohartzen ginen Rock and Rolla, konpromezua eta alaitasuna batera joan daitezkeela.

Jendez betetako eskenatokiak, "Lola" ezaguna guztion ahotsetan eta eurak pozik eta mozkorturik gogoratzan ditugu oraindik.

Inadaptados

86ko "Inadaptados" diskoa, urrats luze bat izan zen Euskal Herriko Rock and

Rollean. Ez genuen ordurarte argitutarako diskorik onena, bai ordea inportanteena. La Polla edo Eskorbuto gisako taldeek lortu ez zuten soinu tinkoa, Cicatrizekoek erdietsi baitzuten.

Borobilak, estribiloz betetakoak, genituen Inadaptados-en agertzen ziren abestiak. Ez zituzten sartu "Enemigo Publico Numero 1" edo "Eskupe" abesti ezagunak, ez zuten behar eta. Oso denbora gutxian himno bilakatu ziren beste abesti asko sortzeko gai izan ziren. Besteak beste, "Esto saldra bien", "Chota" edo "Botes de humo" kantak. Garratzak, alaiak, gogorrak, krudelak, galduak eta antzeko beste hainbat adjetibo ezarri genieziaieka kanta horiei.

"Inadaptados" leku guztietara ailegatu zen. Disko horri esker ateak zabalik zeuzkaten, baina laster itxi zitzaizkien, ordea.

88an, Natxok jasandako istripuak eta "4, 2, 1" izeneko bigarren diskoak ez zuten inor konbentzitu. Zulo handi bat ireki zen Cicatrizen depositoa eta berehala hustu. Maldan behera zihoazen, bakoitzak ahal zuena eginez.

Bi urte geroago etorri zen hirugarren lana, "Colgado por ti" izenekoa. Madrilgo argitaletxe baten zigilupean kaleratu zuten. Taldeak, ordea, ez zuen ezta peze-ta bat bera ere ikusi. Hirugarren lan hori Madrilgoek bahituta zeukatela salatzen zuten Cicatrizekoek.

Natxoren gaixotasuna ez zen eragozpen izan berriz ere ahal izan zuenean agerraldietara bueltatzeko. Abeslariak bazituen etorkizuneko proiektuak laukote berriarentzat. Bere desagerpenaren egunean, esaterako, Badalonan egon behar zuten Potato eta S.A. talde gasteiztarren ondoan. Ez ziren joan.

Egun, bihotzean gordetzen dugu taldearen aurpegi gogorra eta alaiak, eta besopean "Inadaptados" diskoa. Ondo ibili eta goraintziak joan diren lagun guztiei.

Joxe Mari & Txabi Arnal Gil

datozen kontzertuak

Horra hor laster Elefante Blanco aretoan ikusi eta entzun ahal izango duguna. Abisatuta zaudete,

Martxoak 9.

La Piel.

Martxoak 15.

Ogara.

Martxoak 22.

The Dictators

Martxoak 23.

Nu.

Martxoak 30.

La Polla Records.

Apirilak 6.

Ilegales.

Apirilak 19.

Snuff.

Maiatzak 4.

Rancid.

Ekainak 27.

Frank Black (Pixies taldearen abeslari ohia).



LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



★
IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

ONGI ETORRI
xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

geurekin txotx

martxoaren 29an

Astigarragako sagardoa dastatzeko aukera paregabea

Eguna: martxoak 29, ostirala

Irteera: 7,30etan Txapela tabernatik

Afaria: 9,30etan - 2.500 pta inguru

Bueltatzeko ordua: Gauerdiko ordu txikiak

Hernanin zeozer hartu ondoren 4ak aldera
Gasteiza bueltatuko gara.

Adi! martxoaren 20ra arte duzu izena emateko
aukera (edo autobusa bete arte). Eta ez ahaztu,
apuntatzearekin batera bidaia ordaintzeko 1.500
pta sar itzazu kontu honetan:

Euskadiko Kutxa
142.0.00561.5

Anima zaitetz! Zehaztasun gehiagotarako dei
ezazu telefono honetara:

22 21 53



MARTXOA . AG

gaur... bisita

martxoaren 20an goizeko 11etan

"naipes" museora

martxoaren 25an, goizeko 10,30etan

Eusko Legebiltzarra

martxoaren 27an, goizeko 11etan

Arte ederretako museora

izena eman martxoaren 4tik 15era

Landatxo Gizarte etxean

antolatzailea: Gasteizko udala



GEUrekin mendira

Lezea Olano Hirumugarrieta

martxoaren 17an

Irteera:

goizeko bederatzieta, Prado kalean,
Txapela tabernaren aurrean.
Gure autoetan joango gara.

Itzulera:

Hiru t'erdiak aldera

Ibilbidea:

Ilarduia, Lezea kobazuloa, Olano,
Hirumugarrieta, Ilarduia.

Adi:

*Hamaiketako sendoa eraman.
Ez ahaztu ardoa!*

KLASEAK
MATEMATIKA
FISIKA
KIMIKA
BIOLOGIA
GEOLOGIA

IRAKASITZAIA ERANTZUNA
UNIBERTSITATEA

TEL.: 26035

antolatzailea: *Gasteizko bertso eskola*
laguntzailea: *GEU elkarte*

bertso astea

astelehena *martxoak 25*

Kantu kontari:

Bertso doinuen antologia Juanito Dorronsoro Jon Maiaren laguntzarekin

asteartea martxoak 26

Bertsolari gazteen pasarela

**Igor Elortza
Ainhoa Agirreazaldeg
Oihane Perea
Xabier Silveira
& Koldo Mitxelenako bertsolariak**

asteazkena *martxoak 27*

Mahaingurua:

Bertsolaritza III. mileniorantz
Xabier Amuriza
Jon Sarasua
Jon Maia

osteguna martxoak 28

Paperetik plazara (bertso jarrien emanaldia)

Jon Enbeita, Ireneo Ajuria & taldea

ostirala martxoak 29

Txusta tabernan

"San Prudentzio" bertso saria azken laurdenak

eta gero...

Bertso afaria



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA IAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfinoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfinoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •

Denbo rapASa

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	A	L	A	V	E	S		E	T	B
2	H	I	E	S		A	E	T	O	A
3	A	E	K		A	I	T	A		S
4	R	F		R		E			L	O
5	I	N	T	S	E	N	T	S	U	
6		I	K	A	G	A	N	E	K	
7	E		A	S		B	A	T	U	A
8	E		I	V	C	A	R			S
9		H	E	N	D	R	E			I
10	O		A	A		I	R	A	I	

ZE HARRETARA:

1. Arabako futbol-taldea. Euskal Telebista. 2. Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromea. Zama-aberea. 3. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. Ume bat edo gehiago sortarazitako gizon edo animalia arra. Sufrea. 4. Kontsonante bikoitza, Txakur, Ekialdea. Esna ez. 5. Elizkizunetako gai usainduna. 6. Lehenaldiko. 7. Ekialdea, Arsenikoa. Idatziz erabiltzeko euskara. 8. Azkena. Iberiar Penintsulako ibaia. Sufrea. 9. Txikien. lodoa. 10. Oxigenoa. Alkoholiko Anonimoak. Ur-korronte natural

Oxigenoa. 2. Neska izena. Mila. 3. (Ald.) Suari dariona. Soinekoa, jantzia. 4. Versus. Nafarroako futbol-taldea. 5. Ekialdea. (Ald.) Gipuzkeraz gara. Compac Disk. 6. Putre. Nabarmen. 7. (Ald.) Berantetsi aditzaren infinitiboa. 8. Lokailua. Adan eta Evaren hirugarren semea. Nafarroa. 9. Harridurazko hitza. Arabako herriska. Iodoa. 10. Edalontzi. Basamortuko berdequnea

GOITIK BEHERA:

1. Ardiaren arra. Ukatzeko.



OLARIZU elkarte gastronomikoan



URTE BAT BETE DA "sukalde txokotik" atala aldizkarian lehen aldiz agertu zenetik. Denbora horretan hama-bi elkarrizketa egin ditugu beste hain-beste jatetxe bisitatuz. Une oso onak pasa ditugu eta hemendik gure agurrik beroena jaso dezatela elkarrizketatutako sukaldari horiek guztiek.

Baina ez pentsa gutaz hain erraz libratuko zaretenik. Honako honetan beste atal berri batekin hasiko gara. Izenari esker antzemango duzue ez dugula sukaldaritza alde batera utziko. Su artean jarraituko dugu aurrerantzean ere, baina gastronomi elkarteetara joango gara elkarrizketak egitera. Horrela ikasitakoa praktikan jartzeko egokiera izango dugu behar bada. Elkarte gastronomikoak oso hedatuak daude Euskalerrian eta mundu bitxi bat osatzen dute. Leku hauetara

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

hurbiltzen direnak ondo jan eta edatearen jarraitzaile izatearen ospea dute eta gu gutxiago izango ez garenez Matxete enparantzaraino abiatu gara. Han, "Covachas" izeneko tokian Olarizu elkarte gastronomikoa topatu dugu. Elkartearen ezkutuan honako esaldi hau irakur daiteke: "hemen janaria ondo maneiatzen da". Bertan, Santi Arkaia elkarteko kidearekin solasaldian aritu gara.

Nola sortu zen elkarte hau?

Olarizu elkarte duela 48 urte sortu zen. Gasteizen sortu ziren lehenetarikoa gara. Hasiera batean 12 lagun besterik ez baginen ere, gaur egun 43 kide gaude. Denak ezagunak gara, koadrila haundi baten moduan. Gure lehengo egoitza San Markos kantoian kokaturik zegoen. Egun Matxete enparantzan gaude eta ondoan beste bi elkarte daude: "Eliz xpe" eta "Aldapa".

Zergatik Olarizu?

Olarizu izena hartu genuen Olarizu mendiararen ohoreagatik, Gasteizen inguruan dugun mendi famatuena delako. Olarizu egunean ospatzen dugu gure jaia. Egun horretan udal komitiba gonbidatzen dugu eta mojoien bisita egin ondoren gure egotzaraino hurbiltzen dira eta luntxa-

prestatzen diegu. Egun horretan bitxikeria moduan plater berezi bat prestatzen dugu: baba galeperrekin eta antxumea laranjaz.

Zuek gainera lelo bat duzue: "hemen janaria ondo maneiatzen da".

Bai, hala da. Lelo hori elkarte gastronomikoaren txapelketa batetik atera genuen. Irabazi egin genuen eta handik aurrera hori izan da gure goiburua.

Orain duzuen egoitza lortzeko etxebizitzaren truke bat egin omen zenuten?

Bai, horrelako zerbait egin genuen. Hasiera batean San Markos kantoian geunden baina aldatzea erabaki genuen eta Matxete enparantzan bizi zen andre bati proposamen bat egin genion. Gure elkartearen bertan berak etxea izatea eskaini genion eta "La Gerula" goitizenez ezaguna den emajume harek onartu egin zuen etxez aldatzea. Bi pisutako etxea da hau. Behean sukaldea eta kartetan jokatzeko gelatxo bat dugu. Gela horretan gordetzen ditugu aintzinako argazkiak eta gure oroigarriak. Jantokia bigarren solairuan dago.

Emakumerik onartzen duzue elkartearen?

Gure elkartearen ez dago bazkide den emakumerik. Hala ere horrek ez du esa nahi hona ezin direnik sartu; nahi dutenean etortzen dira.

Zein motatako sukaldaritza egiten duzue

hemen?

Hemengo sukaldaritza, dudarik gabe, etxekoa da; makailoa, legatza, txuletoiak eta abar. Batzuk astean zehar eta beste batzuk asteburuetan etortzen gara hona afaltzera eta afaldu ondoren kartetan jolasten dugu. Oso giro jatorra dago. Tarteka bazkariak ere egiten ditugu.

Afaria prestatzen utzi dugu Santi Arkaiari. Alkatxofak, arkumea eta solomilloa ditu esku artean. Eta elkartearen leinari (hemen janaria ondo maneiatzen da) jarraitzen diotela ziurta dezakegu. Gaurko menua, plater interesgarriek osatzen dute inolako zalantzarik gabe. Baina destinu petrala gurea; elkartearen jendez gainezka dago. Ezinezkoa izango zaigu afaltzen geratzea, hurrengo txandari itxoin beharko diogu, tamalez.

Karlos Fdz de Betoño





APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

BIHAR... HOLLYWOODERA?



KONGRESOA

1. Koldo Valle
2. Mikel Mintegi
3. Patxi Ormazabal
4. Ainboa Mouriz
5. Igone Martinez de Luna
6. Aitor Landa



Koherentzia nazionalista Euskadi defendatzeko

Eusko Alkartasunak gure herriaren irudi berri bat eman nahi du, Bakearen eta aurrerapenaren alde lan egiten duen eta Madrilen zer esan asko duen Herri batean.

Gure taldeak bonako helburuak lortu nahi ditu:

- ☐ Bakerako irtenbideak
- ☐ Gure ekonomia suspertzen eta enplegua sortzen laguntzea.
- ☐ Norberaren askatasuna eta Herri gisa ditugun eskubideak erabat errespetatzea.
- ☐ Autogobernuan aurrerapauso sendoa ematea.
- ☐ Gure aiton-amonei arreta hobea eta baztertutako kolektiboentzako laguntza ematea.
- ☐ Ustelkeriaren aurkako neurri eraginkorrak onartzea.
- ☐ Euskal Herriak European partaidetza eraginkorragoa eta benetakoagaoa izatea



SENATUA

1. Avelino Fdz de Quincoces
2. Pablo Isasi
3. Xabier Saiz Calderón



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

